



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2009ko irailaren 29a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:03

BUKATZEKO ORDUA: 20:32

BERTARATUAK:

Alkatea

Jon Redondo Lertxundi

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

Idazkari-kontu hartzailea

Jon Carrera Jauregi

AZTERGAI ZERRENDA

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, Udalbatzarraren honako bilkuretako akten zirriborroak: 2009ko otsailaren 24ko, maiatzaren 28ko eta uztailaren 28ko ohiko bilkuretakoak eta 2009ko apirilaren 7ko, maiatzaren 12ko eta ekainaren 23ko ezohiko bilkuretakoak.
- 2.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Udalaren 2008ko Aurrekontuaren Kontu Nagusia.
- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioen bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren eta programazioaren azterketari.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Bixente Lasa Karrikaburu zinegotziaren (EA) izendapena, Orioko Udalaren 4. ordezkari gisa, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen Batzar Nagusian.



- 5.- Baimena ematea, egoki bada, Orioko Udal Kanpineko taberna eta supermerkatu jarduera eskualdatzeko, kontzesio administratiboko erregimenean, Imanol Arruti Lazkanori.
- 6.- Eskariak eta galderak.

ESAN-EGINAK

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN HONAKO BILKURETAKO AKTEN ZIRRIBORROAK: 2009KO OTSAILAREN 24KO, MAIATZAREN 28KO ETA UZTAILAREN 28KO OHIKO BILKURETAKOAK ETA 2009KO APIRILAREN 7KO, MAIATZAREN 12KO ETA EKAINAREN 23KO EZOHIKO BILKURETAKOAK.

Udalbatzarrak honako bilkuretako akten zirriborroen berri jakiten du: 2009ko otsailaren 24ko, maiatzaren 28ko eta uztailaren 28ko ohiko bilkuretakoak eta 2009ko apirilaren 7ko, maiatzaren 12ko eta ekainaren 23ko ezohiko bilkuretakoak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

ONARTZEA Udalbatzarraren honako bilkuretako akten zirriborroak: 2009ko otsailaren 24ko, maiatzaren 28ko eta uztailaren 28ko ohiko bilkuretakoak eta 2009ko apirilaren 7ko, maiatzaren 12ko eta ekainaren 23ko ezohiko bilkuretakoak.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2008KO AURREKONTUAREN KONTU NAGUSIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez, jendaurrean jarri dira, batetik, 2008ko ekitaldiko urteko kontuak eta kontabilitateko egoera orriak, eta, bestetik, 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, bere agiriekin, eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena; agiri horiek 15 laneguneko epean egon behar zuten jendaurrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, herritarrei aukera emateko aztertzeko eta, epe horren barruan, beren eragozpen edo oharrak idatziz aurkezteko.

Iragarkia 2009ko uztailaren 10eko GAOn (128. zenbakia) argitaratu zen eta, beraz, jendaurreko epea eta oharrak aurkezteko epea 2009ko uztailaren 11n hasi zen eta uztailaren 29an bukatu.

Epe horren barruan ez zen inolako eragozpen edo oharrik aurkeztu.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, jendaurreko informazio aldiaren emaitza ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Garcia (EB-B/Aralar), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**; abstentzioak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**]:

ONARTZEA Udalaren 2008ko Aurrekontuaren Kontu Nagusia, aurrekontu propioak eta Orio Garatzen SL udal sozietate publikoaren aurrekontuak osatzen dutena.

Emandako botoa azaltzeko, Karmele Belasko zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du kontrako botoa eman ziola Udalaren 2008ko Aurrekontu Orokorraren onarpenari eta, nahiz eta aurrekontu horren barruan partida asko dauden oriotarrentzat probetxuzkoak direnak, beste batzuk —Bisiguaren Egunaren ospakizunari buruzkoak, esate baterako— nahitaez eskatzen dutela birplanteamendu egoki bat.

3.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN ETA PROGRAMAZIOAREN AZTERKETARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; azterketa Santiago Peñalba eta Manu Arruabarrena arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak idatzi dute.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde Informatzaileak eta Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2009ko irailaren 24an egindako bilkura bateratuan emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Garcia (EB-B/Aralar), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **BOST ABSTENTZIO BOTO**]:

MAHAI GAINEAN UZTEA Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioen bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren eta programazioaren azterketaren lehen onarpena, bozketan ez delako lortu udalbatzarkideen legezko kopuruaren gehiengo absolutua —hau da, gutxienez, sei aldeko boto—, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2-II artikulua agintzen duen bezala.

Emandako botoa azaltzeko, Joseba Goiburu zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela, bideragarritasun-azterketa horretan hainbat hutsune ikusten dituelako: alde batetik, 2006, 2007 eta 2008 urteetako inbertsioen behin betiko aurrekontuei buruzko hutsuneak daude, eta, bestetik, ez dago dokumentuan arraunketa eta piraguismoko teknifikazio-zentroari dagokion inbertsioaren aipamenik; hori dela eta, uste du azterketa horrek ez duela errealitatea osotasunean islatzen.



Emandako botoa azaltzeko, Iñaki Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du azterketan jaso dela berak egindako ekarpena (*Kontu hau dela eta, nabarmentzeko modukoa da Udalaren 2009ko aurrekontuan badagoela dagoeneko partida bat, 50.000 eurokoa, alokairuzko babes ofizialeko etxeak eraikitzea sustatzeko Dike inguruan*) eta, beraz, alde horretatik ez daukala azterketaren testuari buruzko eragozpenik; nolana ere, testuarekin batera aztertu behar da testuingurua ere eta, alde horretatik, ez du batere garbi ikusten azterketak zer justifikazio duen; batez ere, kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak Orioko Arau Subsidiarioen Eraberritutako Testua indargabe utziz emandako azken epaia.

Bixente Lasa zinegotziak (EA) hartzen du hitza eta adierazten du bat datorrela Goiburu eta Iturain zinegotziek azaldu dutenarekin; horrez gain, azaltzen du gaur arte ez duela jakin Orioko Arau Subsidiarioen Eraberritutako Testua indarrrik gabe utzi duen epaiaren berri, eta ez duela jakin, ezta ere, 2010eko Euskal Herriko txirrindulari itzulia Orion izango denik eta, azkenik, ez duela jakin, ezta ere, Done Jakue Bidearen interpretazio-zentroa eta turismo bulego berria hurrengo ostiralean inauguratuko denik; eta, horren guztiaren ondorioz, uste duela alkateak ez dituela aintzat hartzen udalbatzarra osatzen duten beste zinegotziak.

Azkenik, alkateak hartzen du hitza eta bertaratutako udalbatzarkideei galdetzen die ea bideragarritasun-azterketa onartzeko sortzen zaien zalantza bakarra 2006, 2007 eta 2008 urteetako inbertsioen behin betiko aurrekontuetan nabarmendutako desfasea den; bestalde, adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak Orioko Arau Subsidiarioak indarrrik gabe utziz emandako bi epai horiek azterketa ekonomiko-finantzario horren faltan oinarritu direla, bakar-bakarrik, eta, beraz, hori izan dela bideragarritasun-azterketa hau egitearen arrazoia.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BIXENTE LASA KARRIKABURU ZINEGOTZIAREN (EA) IZENDAPENA, ORIOKO UDALAREN 4. ORDEZKARI GISA, UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAREN BATZAR NAGUSIAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Euskara, Hezkuntza eta Merkataritza batzorde informatzaileak 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Garcia (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BI ABSTENTZIO BOTO**]:

ONARTZEA, Bixente Lasa Karrikaburu zinegotziaren izendapena, Orioko Udalaren 4. ordezkari gisa, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen Batzar Nagusian.



5.- BAIMENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL KANPINEKO TABERNA ETA SUPERMERKATU JARDUERA ESKUALDATZEKO, KONTZESIO ADMINISTRATIBOKO ERREGIMENEAN, IMANOL ARRUTI LAZKANORI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde Informatzaileak eta Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2009ko irailaren 24an egindako bilkura bateratuan emandako diktamena ikusita,, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

BAIMENA EMATEA Orioko Udal Kanpineko taberna eta supermerkatu jarduera eskualdatzeko, kontzesio administratiboko erregimenean, Imanol Arruti Lazkanori, honako baldintzekin:

- 1.- Aldez aurretik ordaindu beharko du Orioko Udal Kanpineko taberna eta supermerkatu zerbitzuak emateko 2009ko kanona.
- 2.- Adjudikaziodun berriak 15.000 euroko aginduzko abala aurkeztu beharko du udal bulegoetan.

Ez badira bi baldintza horiek betetzen 20 laneguneko epean (erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita), erabakia bertan behera geratuko da, inolako eragin juridikorik gabe.

6.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/A) hartzen du hitza eta adierazten du ez duela ulertzen Hazienda batzorde informatzaileko buru Martxiel Genobak bidali dion e-maila; bertan Martxielek eskatzen dio 2010eko aurrekonturako gastuen eta diru sarrerren aurreikuspena egiteko, baina, Iñakiren ustez, horretarako ezinbestekoa da jakitea, aldez aurretik, diru sarrerren aurreikuspena, finantzazio-lehentasanak, ohiko gastua eta abar.

Garcia zinegotziak adierazten du, baita ere, alkateak dekretu bidez eman duela Munto sektorean obra handiak egiteko udal baimen bat eta, bere ustez, baimen hori diktaminatu egin behar zela dagokion batzorde informatzailean; alkateak erantzuten dio esanez Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden lege-xedapenek ematen dizkioten ahalmenak erabili dituela eta berdin egin izan duela herriko beste inguruetako obra-baimenak ematerakoan.

Joseba Goiburu zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du udaletik kanpo jakin duela 2010eko Euskal Herriko txirrindulari-itzuliaren bukaera Orion izango dela, eta horren errua alkateari leporatzen dio; alkateak erantzuten dio esanez 2008rako argitaratu zela kontu hori komunikabideetan.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ohiko bilkura
2009/09/29

Azkenik, Joseba Goiburuk idatzi bat irakurtzen du; idatzi horretan Villabonako Udaleko alkateorde Remi Aiestaranen heriotzari buruzko balorazio politikoa egiten du eta salatu egiten du PSEren jarduera ETako presoen argazki eta kartelak kentzeari buruz.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,